

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Munduaren orpoa

Inoizko eta betiko herrian, gauzak oker: urak ez ziren iturrietara heltzen, katuek ez zituzten xoko-bazterrak miatzen. Eta gaiztoena zen gerra zutela gizonek denborapasa, kalean nahiz etxean. Arduraturik, lau haizeetako bidegurutzean elkartu ziren bertako andreak.

Umeak eskolan uztetik zetorren Urkia, Ziburutik behera. San Adriango tunela zeharkatuta, aita erresidentzian bisitatzetik, Sandia. Gizonarentzako bazkaria prestatu eta *tupperware* batean gorde, hozkailu berriaren faktura ordaindu, alaba-arentzako mediku-kontsultaren ordua eskatu, eta produktu bio-ekologikoen otzara enkargatzetik, Berendia. Pindo-ko mendi urrunetatik heldu zen Lisistrata, Grezian guduakugarretan utzita.

JURAMENTUA. Zahar nahiz gazte, garai zein mozkote..., zuriak, beltzak, ilehoriak, beltzaranak..., heterossexualak, homossexualak, bise-
xualak, transexualak, sexu-joera deskubritu gabekoak..., soldatapean lanean zihardutenak, halakorik ez zutenak, alargun-saria borrokatzen ari zirenak..., senarrek jipoituak, semeek lapurtuak, alabek errefusatuak, apaizek sodomian hartuak...; emakume-mundu oso bat bildu zen lau puntu kardinalen bidegurutze hartara.

Luze aritu ziren emakumeak, auzi eta eleta bizian. Kexa nagusia zen bigarren mailakotzat hartzen zutela gizonek emakumea: azken-putz. Zazpi galtzagorri bezain kexu zeuden denak: zer egin eta zer ez egin, zer komeri eta zer ez, nola irauli egoera. Zelan goldatu patriarkatuaren eskuak ereiten zituen lurrak.

– Gu hilda ere, astoak errotara! –etsitako batek.

Ez zuela zertan. Mundua alda zitekeela. Hobetu. Justuago egin. Berdintasuneko. Denentzako berdina, nori berea emanda.



INIGO AZKONA

Ez diot atseginik emango borondatez,
eta bortxaz hartzen banau ez natzaie
haren mugimenduei egokituko...
ez dizkiot oinak sabairaino jasoko;
ez eta lau hankatara jarriko,
lehoi-eme baten gisara



irudia:
Antton Olariaga

– Dios! Barrabiletatik harrapatu beharko geniken horietakoren bat...

“Barrabiletatik baino, luzeago duten horretatik harrapatuko ditinagu horiek guztiak”, esan zuen Lisistrata. Eta, gizonak behingoagatik arrastoan sartzeko, honako juramentu hau egitea proposatu zien:

– Ez da ez senar ez amoranterik hurbil-
duko zaidanik, bat-batean zakila
zut hartuta. Etxean, zezenik gabe
biziko naiz. Ez diot atseginik
emango borondatez, eta bortxaz
hartzen banau ez natzaie haren
mugimenduei egokituko... ez diz-
kiot oinak sabairaino jasoko; ez eta
lau hankatara jarriko, lehoi-eme
baten gisara.

ETA HAU HOLA BAZAN. Urtebetez bizi izan ziren emakumeak zezenik gabe, ahari eta zaldirik gabe. Berdintasuna nahi zuten andreek. Aintza-kotzat hartuak izatea. Bakea, etxean nahiz lanean. Umiliatuak ez izatea. Ez joak, ezta hilak izatea ere. Horre-
gatik juramentua eta greba.

Protesta hura zela eta, urtebetez iraun zuen ortziak ilun eta goibel. Urtebetez egon ziren katuak miau esan barik, txoriak hegaldatu gabe. Elkartasunez.

Munduak behea joko zuela mehatxatu zuen apaizak. Baina, bakarrik geratu zen bere kritika eta oihuekin, sotana beltza lotu ezinik.

Gerrak ez zuela zentzurik, hala esan zuen alkateak. Jubilatu nahi zuela, jeneralak. Gezurrik ez zuela kontatuko, kazetariak. Nebak, ez zuela irainduko arreba. Senarrak, garbigailua jartzen ikasiko zuela. Lapur-
rak, itzuliko zituela pitxiak.

Eta, bat-batean, txori bat hegaldatu zen, sasietatik ortzira jauzi eginda. Gordelekuetatik atera ziren katuak. Eguzkia ikusi zuten inoizko eta beti-
ko herri hartan. Ziburura itzuli zen Urkia. Hermuara, Sandia. Fakturak jaurti zituen surtara Berendia. Korinto hartu zuen begietan Lisistrata. ■